

## EUSKAL IRAKASLE TITULUA

*Euskaltzaindiaren euskal irakasle titulua lortzeko eskatuko dena*

## A. LEHENGO MAILA

1. *Ortografiazko arauak*. Arantzazun eman zirenak. Diktado baten bidez eskatuko litzaizkioke kandadatoei.

2. *Morfologia*: izenjokoa, sufijazioa, aditza.

3. *Analisa*: morfologiari eta sintasiari buruzkoa. Morfologiazkoan lehen aipaturikoak sartuko lirake. Sintasiakoan galdegaia, esaldien azterketa (kausalak, relatibozkoak, noizkoak, kondizionalak, konzesibak, konparatibak, etab.), *la* eta *n* noiz, nola eta zergatik erabiltzen diren galdegingo litzaioke.

4. Gaztelaniatik euskarara itzulpena.

5. Oinarrizko *hiztegia*, Mitxelenak aurrenik proposatu zuena, ezaguteza. Norberak erabiltzeko adina ez baledi ere, testo batean azaltzen delarik hitz haien berri jakiteko adina bederen.

6. Gai batez *mintzarazi*. Aukera hiru eman, esaterako, eta ikasleak leritzakeenaz ordu laurdenean hitz egin.

7. *Metodologia*. Zer da hizkuntza irakastea? nola irakats?

8. Egungo eguneko *autoreak ezagutu*, horiek irakurtzeko erraztasuna izan, autore horietako batzuen berri jakin, etab.

9. *Euskera batua*ren teoria. Haretan idatziriko puska eman eta bere xehetasunik nabarmenen berri eman. Batasunerako proposatzen diren aditz sistemen berri jakin.

## B. BIGARREN MAILA: Lehengoez gainera:

1. *Dialektologia* piska bat. Bateko eta bosteko puskek eman eta bakoitzaren berezitasunak ezagutu. Zer euskalkitako den halako puskarri igerri, noizkoa den, norena den asmatu eta urreman bederen.

2. *Literatura*: oraingo idazleez gainera klasikoak ere ezagutu, bakoitzaren berri jakin: Axular, Detxepare, Mogel, Agirre, etab.

3. Euskararen historia eta bizitza ezagutu. Zer da euskara?

4. *Estilistika* piska bat. Testoa emanik, bere berezitasunik nabarmenenak aditzera eman: esaldi osatzeko tankera, izena eta izenlaguna erabiltzeko era, joskera, esaldi bakoitzaren tolestapena, etab.

5. *Lan monografikoa* nahiz literaturari nahiz pedagogiari buruzkoa. Baita autoreren baten idazlanaren azterketa ere. Hamabost edo hogeitaz orrialdetako.

6. *Praktika* luze samarra. Lehendik irakasten aritua beharko luke izan maila honetako titulu bila letorkeenak.

### C. GORENGO MAILA:

Nolabait esateko, Filosofiako karrera duen mailakoa beharko luke izan maila honek. Goregi irizten balio norbaitek, profesionalistena bederen, hots, euskaraz irakasten bizimodua atera eta gehienbat hartean arituko lirakeenena. Ez bekigu ahantz, euskal IRAKASLE tituluaz ari garela.

Lehen bi mailatan *eskatuaz gainera*, honetan bereziki besteok eskatuko dira:

1. Euskal jakintzaz gainera, linguistikaz ikasia beharko luke izan. Linguistika zer den, joerarik eta eskolarik ezagunenak zein diren, fonologia zer den, etab. Hitz batez, Mitxelena Euskal Fonetikaz ongi jabetua beharko luke izan.

Linguistikako teoriarik ezagunenak jakin beharko lituzke: es-  
trukturalismoa eta konparatibismoa zer diren: Chomskyren berri ere bai.

2. Euskal literatura osoaz gainera beste herrietako literaturaz ere jakin behar luke zenbait gauza; ezin bait daiteke gure zenbait autoreren berri eta gure obra batzuen balio, zenbaiterainokoa den ongi jakin, inguruko literaturaren berri jakin gabe. Beraz esaterako, romantizismoa zer izan den, kostumbrismoa zer den, tragedia bat eta komedia bat zertan bereizten diren, poesia nolakoa eta zenbat eratakoa eta garairik handienetan zer joeratakoa izan den, etab. jakin gabe ezingo luke inork maila honetako titulurik eskura.

3. Euskararen jatorriari buruz eta beste zenbait hizkuntzarekin omen duen antzari eta aldeari buruz ere ezagutu beharko lituzke batoren eta bestearen iritziak. Uhlenbeck, Schuchardt, Bouda, La-

fon, Tovar eta beste zenbait hizkuntzalarik euskarari buruz esanak jakin behar ditu. Kaukasoetako hizkuntzekin, iberikoarekin, eta abarrekin zer antz eta zer alde dituen. Latinetik hartu dituenak, zer esanik ez.

## BIBLIOGRAFIA PUSKA BAT

### A. *Lenengo maila*

*Euskera* 1968, Academia de la Lengua Vasca, Bilbao, 1968.

Villasante-ren *Hacia la lengua literaria común*.

Villasante-ren *La declinación del vasco literario común*, biak Editorial Franciscana Aránzazu, Oñate, 1970 eta 1972.

*Batasunaren kutxa*, Lur Editoriala, Donostia, 1971.

*Lehen urratsak*, Lur Editoriala, Donostia, 1971.

*Ikastola hiztegia*, Gordailu, Donostia, 1971.

*Euskal Gramatika*, Fernando Mendizabal, Editorial Franciscana Aránzazu, Oñate.

*Euskal Gramatika laburra*, A. Villasante, Editorial Franciscana Aránzazu, Oñate, eta Harriet, Etxeberri, Harotçena, Belloc-ekoa, Umandi, Arrigarai (Ataun), Lopez-Mendizabal, Peña, Oñatibia, Altuna etab.-en gramatika eta euskal irakasbide.

### B. *Bigarren maila*

*La lengua vasca*, Lafon, Enciclopedia ling. hispánica I, Madrid, C.S.I.C.

P. de Yrizar, Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País.

Etxepare, Leizarraga, Axular, Oihenarte, Etxeberri Sara-koa, *Peru Abarka* Mogelena, *Testamentu Berria* Lardizabal-ena, Iturriaga, Etxahun, Bilintx, Elizanburu, Domingo Agirre, Jean Etxepare, Lizardi, *Refranes y Sentencias*, eta abarren obrak zatika edo osorik erraz aurki daitezke.

C. *Gorengo maila*

*Introduction to theoretical linguistics*, Lyons.

*Lingüística estructural*, F. R. Adrados, Editorial Gredos.

*Introducción a la lingüística descriptiva*, Gleason, Editorial Gredos.

*Éléments de ling. générale*, Martinet, Ed. Gredos.

*Aspects*, Chomsky, C. P. Oterok itzulia, Ed. Gredos.

*Introducción a la lingüística histórica*, Lehman, Ed. Gredos.

*Fonología española*, Alarcos, Ed. Gredos.

*La lengua vasca*, Enciclopedia ling. hispánica I, Madrid, C.S.I.C.

*L'euskaro-caucasique*, «Le Langage», Encyclopédie de la Pléiade XXV, Gallimard.

OHARRA: Bibliografia hau ez da osoa, gidatzeko zerbait baik. Hortik gainera *Euskera*, *Fontes linguae vasconum*, *Egan*, eta beste aldizkari batzuk eta baita ere euskarari buruzko euskal argitaldarien zenbait liburu interesgarri.

---

EUSKALTZAINDIRA EUSKAL IRAKASLE TITULUA ESKURATZEKO BIDALIAK IZAN ZIREN «CURRICULUM VITAE»EI BURUZ, HORRETARAKO IZENDATU ZEN BATZORDEAREN AGIRIA

«Eibarren, 1972eko Apirilaren 9an bildu gara, Euskaltzaindiak lan honetarako izendatu gintuen hiru lagunok: Alfonso Irigoyen, Patxi Altuna eta Serafin Basauri.

Gure eginzuna honako hau izan da: «curriculum vitae» baten bitartez beste gabe, hots, esaminik gabe, euskal irakasle titulua eskuratu nahi zutenei eman behar zitzaien ala ez erabakitzea. Alegia, euskaraz *mintzatzen irakasten* oraindano egin dituzten merezimenduak aski ziren ala ez titulu hori eskuratzeko.

Ez zaigu bidezko iduritu esku zabalegiz jokatzeari: bidali zaizkigun eskabideak banan banan aztertu ditugu eta zenbaitek aurkeztu

dituen merezimenduak txalotzen ditugu. Alabaina, Euskaltzaindiaren titulu hori baliotsuago izan dedin eta beherengo mailako agiria eskuratzeko prestatu den programa ikusirik, egokiago iruditu zaigu, lagunik gehienek urrian izango den esaminaren bidez eskura dezaten.

Halaz are, banaka eman ahal izan diegu delako titulu hori.

Izenpetzen dute: A. Irigoyen, S. Basauri eta P. Altuna-k.

TITULUA JAUN-ANDERE HAUEI EMATEA ERABAKITZEN DA: Imanol Laspiur Zabala, Jaime Goenaga Cenicacelaya, Xabier Peña Albizu, Eusebio Osa Unamuno, Juan M.<sup>a</sup> Artola Cortajarena, Aita Letona, Flora de Idarreta, M.<sup>a</sup> de Ojanguren, Jesus Oyarzun San Roman, Patxi Uribarren Leturiaga eta Francisco Murguruza Ansola».

Euskaltzaindiaren erabakiz (Auritze 1972 Iraila 10), Behengo mailako irakasle karneta lortu nahi dutenentzako esaminak urrian izango dira, Bilbon eta Donostian.

Eguberrietan beste esaminaren bat izatea baditeke, horretarako ikastaroren batzuk eratzen badira.

Bilboko esamina, Euskaltzaindiaren Etxean izango da, Urriaren 7an, arratsaldeko 3retan.

Donostiakoa, Mundaizen, E.U.T.G. delakoan, Urriaren 14an, ordu berean.

Matrikulatzea, Bilbon esamina nahi dutenek, Euskaltzaindiaren bulego nagusian, Ribera, 6,an egin beharko dute. Donostian nahi dutenek, Euskaltzaindiaren Donostiako Ordezkaritzan (Diputazio Jauregian), goizeko 10,5 — 13,5 bitartean.

Matrikula ordaina 250 pezeta da. Hiriburuetatik kanpo bizi direnentzako errazago delako alde batetik, eta bulego arazoetarako egokiago eta garbiagoa delako ere bai bestetik, ordainketa hori banku bidez egitea eskatzen da, era honetara: Hurbilen duzun «Caja Laboral Popular» batera joan eta Bilboko bankuetxe horretako 198 «cuenta corriente»ra: Euskaltzaindia «Academia de la Lengua Vasca» izenekoaren alde abonatu bat egin, «duplicado» delakoa bu-

legora eramana edo korreoz bidaliaz. Horretara Bilbo edo Donostiara zertan joanik ez duzu.

Esamina hauetara lehen «curriculum vitae» bidali zutenak, ikastaroa Donostian edo Bilbon egin dutenak, nahiz bere aldetik nahi duena joan daitezke.

## BATZAR-AGIRIAK (1970)

1970-I-30

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1970-eko urtarrilaren 30-ean, goizeko 10 terdietan.

Bildu dira: M. Lekuona buru, Arrue, Diharce, A. Intza-koa, Irigaray, Irigoyen, Labayen, eta Villasante euskaltzainak; Altuna, F. Arregi, Bastarrika, Beobide, Berrojalbiz, Berrondo, J. Estornés, Etxaniz, Garmendia (Salbador), Lekuona (Juan María), Lizundia, Oñatibia, Ruiz Urrestarazu, Saizarbitoria, Sarasola, Zatarain eta Zugasti euskaltzain laguntzaileak, San Martín idazkari dala.

Ohi dan otoitzarekin hasi da biltzarra.

Agiria ontzat hartzeko orduan, Irigoyen-ek dio, legeari buruz berak esanak ez daudela zeharo berdin jarriak eta zuzenketa nahi duela zehatz gelditu dedin. Eta ondorean egileak beren lanegatik dituzten eskubidezko xehetasunak honela ematen ditu:

15592-Ley 10 de enero 1879 (M.º Fomento, G. 12). *Sobre propiedad intelectual o literaria*. Eta, 15.594.—*Real Decreto 3 septiembre 1880* (M.º Fomento, G. 6). *Reglamento para la ejecución de la Ley de Propiedad Intelectual*: Art. 36. El plazo para verificar la inscripción será el de un año, a contar desde el día de la publicación de la obra; pero los beneficios de esta Ley los disfrutará el propietario desde el día en que comenzó la publicación, y sólo los perderá si no cumple aquellos requisitos dentro del año que se concede para la inscripción. Art. 38. Toda obra no inscrita en el Registro de la Propiedad Intelectual podrá ser publicada de nuevo reimpresa por el Estado, por las Corporaciones científicas o por los particulares durante diez años, a contar desde el día en que terminó el derecho de inscribirla. Art. 39. Si pasase un año más después de los diez sin que el autor ni su derecho-habiente inscriban la obra en el Registro, entrará esta definitiva y absolutamente en el dominio público. Art. 40. Las obras no publicadas de nuevo por su propietario durante veinte años pasarán al dominio público, y el Estado, las Corporaciones científicas o los particulares podrán reproducirlas sin alterarlas; pero no podrá nadie oponerse a que otro también las reproduzca. Art. 41. No entrará una obra en el dominio público, aún cuando pasen veinte años: 2.º Cuando después de impresa y puesta en venta